

«Gauzak ikusi eta musika-tresnak bisualizatzen ditut»



BORJA ARBAIZA
Birziklatutako materialak
erabiltzen dituen luthierra

hiruka

121. zenbakia

2018ko martxoaren 22tik apirilaren 11ra arte

Andre etorkinei uzten diegu lan zikina

Batez ere atzerriko emakumeak dira etzeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko barneko lanaldia aukeratzan duten beharginak. Gehienak egoera irregularrean daudenez eta lan hori behar dutenez, enplegatzaileen menpe egoten dira.



HIRUKIRA OLGETAN | 8-9

UMEENTZAKO DENBORA-PASAK

Hilabeteroko azken zenbakian ohi den legez, umeentzako jolasen atala topatuko duzue aldizkariaren erdiko orrialdeetan.

HERRI-ANTZERKIA PLENTZIAN | 10

ANTON GARAI PIRATA GORLIZTARRA AKORDUAN

Urriaren 20an eta 27an aurkeztuko dute, Plentzian eta Gorlizen, Jokin de Pedrok kortsario horretaz idatzitako antzezlan.

EMAKUMEZKO FUTBOL-EPAILEAK | 13

IRAGARTZE FILMA ESTREINATU DUTE

Iragartze Fernández Esesumaga arbitro algortarraren eguneroko bizitza islatzen du dokumentalak, epaile eta pertsona modura.

Adi!

Datorren astean ez da **HIRUKA** astekaririk argitaratuko; hurrengo, apirilaren 12an.

Euren nagusien geh

Atzerritik etorritako emakumeak dira barneko lanaldian dabilzan etxeko langile gehienak; umeen eta adinekoen zaintza-lanez ere arduratzen dira. Dazkaten baldintzek eskubide-urraketak ahalbidetzen dituzte.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Garai batean ez zegoen neskamerik ez zeukan aberatsen etxerik itsasadarraren eskuinaldean eta, oro har, Uribe Kosta eskualdean; mespretxuz edo ohi-turaz, horrela deitzen zieten umeen zein adinekoen zaintzaz eta etxeko kontuez (garbitzea, lisatzea, kozinatzea...) arduratu behar izaten zuten emakume beharginei. Orduan bertokoak ziren Ezkerraldetik dirudunen etxeetara lanera joaten ziren andre gehienak, itsasadarra Bizkaiko Zubian zeharkatuz.



%95

Barneko lanaldian diharduten etxeko langileen artetik %90-95era hel daitezke emakume etorkinak.

24 ordu

Egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez lan egin behar izaten dute.

3 urte

Gutxienez, 3 urte behar dituzte euren egoera erregularizatzeko.

giegikerien menpe

Batzuek hamabi ordura arteko lanaldiak egin behar izaten zituzten, euren etxeetara joan aurretik. Barneko lanaldian zebiltzanek, ostera, egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez lan egin behar izaten zuten. Denboraren poderioz, ozeanoaz bestaldetik etorritako emakumezkoek bete dute esparru hori. Abokatu eta Mujeres con Voz taldeko aholkularia den Liz Quintana Canterok emandako datuen arabera, barneko lanaldian dihardutenen artetik %90-95era ailega daitezke etorkinak: «Esklabotza-lana da». Eguneko beharginen artean, ordea, parekatuta daude bertoko zein beste herrialde bateko jatorria daukaten andreen kopuruak. Hala ere, euren senarrak edo seme-alabak zaintzearen truke sosik irabazten ez duten etxeko langileak ez ditu aipatu barik utzi gura izan du letraduak. Etxeko langileen nazioarteko eguna (martxoak 30) izateko aste bi baino gutxiago falta dela egin dugu berba haregaz.

BEHARGIN GEHIENAK, ETORKINAK. Zerbitzu publikoek alde batera utzi dute menpeko egoeran dauden adinekoen zaintzailana, Quintanak kritikatu duenez. Beraren berbetan, «euren senideek edo hurbilekoek ere ezin dute edo ez dute gura lan horretaz arduratu; errazena etxeko langilea hartzea da». Hala ere, bertoko beharginek aspaldi uko egin zioten lan hori egiteari, baldintzak oso kaskarrak direlako. Ondorioz, emakume etorkinek hartu dute haien lekua; izan ere, atzerritik gurera heltzen diren andre gehienak egoera irregularrean daude, eta aurrera ateratzeko dirua ez ezik, etxebizitza ere behar izaten dute. Horrek denak lan horiek hartzera eroaten ditu Euskal Herrira etorritako emakumeak.

MEHATXUAK, XANTAIA ETA ERASOAK. Legediak ez ditu lan horiek lanak aintzat hartzen: «Asteko 60 orduko lanaldiak legezkoak dira administrazio publikoarentzat», Mujeres con Voz taldeko aholkulariak dioenez. Barneko lanaldian dihardutenek askoz ordu gehiago egiten dute; menpeko egoeran dauden adinekoen gauz ere botikak eman edo pixoihalak aldatu behar zaizkie. Quintanaren berbetan, etorkinen kasuan «enplegatzaileen menpe egoten dira, horiek badakitelako emakumeek lana behar dutela euren egoera erregularizatu ahal izateko». Gutxienez, hiru urte eman behar dituzte leku zehatz batean erroldatuta, euren egoera arautu ahal izateko: «Horrek mota guztietako abusuak ahalbidetzen ditu, Lan Ikuskaritzak eta abarrek beste alde batera begiratzen duten bitartean».

Etxeko ugazabek paperak egingo dizkieten esperantzaz, mehatxuak eta xantaiak ere jasaten dituzte emakumeek; «denbora hori igarotakoan, askotan ez dizkiete egiten», abokatuak salatu duenez. Askotariko arazoak dauzkate etxeko zein zaintzako lanetan dabiltzan andre etorkinek: jarrera arrazistak, zaindutako pertsonen zein gertuko erasoak eta sexu-abusuak salatu dituzte askok, Quintanak aipatu duenez.

INFORMAZIOA ETA ANTOLAKUNTZA. Mujeres con Voz taldeko aholkulariaren arabera, etxeko emakume langile etorkinak euren eskubideen jakitun izatea da sor daitezkeen arazoei aurre egiteko modurik onena; eta babesa eskain diezaieketen hainbat eragile daudela ezagutzera ere bai. «Beldurra alde batera uztera eta sor daitezkeen legez kanpoko edozein egoera salatzen animatzen ditugu; paperik ez edukitzeak ez du esan gura eskubiderik ez daukatenik», adierazi du Liz Quintanak. Bien bitartean, Mujeres con Voz eta antzeko beste talde batzuek gizarte eta erakundeetan presioa egiten jarraitzen dute, behargin horien salaketak, kezak eta aldarrikapenak heldu behar diren lekura hel daitezten. ◀

Etxeko beharginen eskubideak

Kontratazioa

Idatzizko kontratua egon edo ez, lau aste edo gehiago iraungo duen lan-harreman batean, enplegatzaileak lan-baldintzak agertzen diren agiria eman behar dio beharginari.

Lanaldia

Asteko gehieneko lanaldia 40 ordukoa da, eguneko langileentzat zein barneko beharginentzat, legeak hilabete batean gainditu ezin den asteko batez besteko hogeitau orduko «egon beharra» baimentzen badu ere. Barneko langileek egunean ordu bi libre eduki behar dituzte otorduetarako, ez direnak lanordutzat joko. Beharginari ezin zaio etxetik ateratzea eragotzi, adostutako egon beharreko orduetan ez bada.

Lansaria

Astean 40 orduko lanaldirako, hamalau ordainsariko gutxieneko soldata izango da. Astean 40 ordu baino gutxiagoko lanaldia bada, lansaria orduen arabera kalkulatzen da. Egote-aldi orduak egiten badira, gutxienez lanorduaren balio berdina izan behar dute. Langile batek gutxieneko soldata jasotzen badu, 5,76 euro jaso beharko ditu egote-aldi ordu bakoitzeko. Etxeko langileek gutxieneko soldata baino lansari baxuagoa hitzartu arren, ez dute legezko lansaria, atzerapen eta guzti, eskatzeko eskubidea galtzen.

Kontratuaren bukaera

Probaldia idatziz hitzartu behar da eta ezin da hamabi hilabete baino luzeagoa izan. Langileak kontratua alde aurreko abisurik gabe jo dezake amaitutzat, bere eskubideak bete ezean. Enplegatzailea behartuta dago langileak probaldian eskainitako lanegun denak ordaintzera, eta aparteko ordainsarien eta oporren zati proportzionala ere bai.

Gizarte Segurantzza

Enplegatzaileak berak eman behar du langilearen alta Gizarte Segurantzza, zerbitzuak ematen hasi aurretik.

Erreklamazioak

Kaleratua izanez gero, hogeitau eguneko epean erreklamatzeko komeni da; lansarietarako urte batekoa da epea.

Paperik gabekoak

Gizarte Segurantzza alta ezin eman arren, eskubideak berberak dira: soldata, kaleratzea, lanaldia, atsedenaldirak, jaiegunak, likidazioa eta abar.

RIOSBY FERNÁNDEZ ÁLVAREZ | Etxeko langilea

«Nik ordaindu behar izan nuen Gizarte Segurantzaren alta»

Bolivian bizi den emakumeenganako indarkeriatik ihesi etorri zen Euskal Herrira Riosby Fernández Álvarez; arrazoi ekonomikoak ere bazeuden tartean. Laster hamabi urte egingo ditu gurean boliviarrak; heldu zenetik etxeko langilea izan da, eguneko behargin legez. Gaur egun, sendi baten alaba zaintzen du eta etxeko lan denak (garbiketa, lisaketa, kozinatzea...) egiten ditu bertan.

Etxeko lana ez zen beste zerbait hartzeko aukera eduki zenuen Euskal Herrira ailegatu zinenen? Ez. Gainera, bitxia bada ere, ez nekien etxe batean lan egiten egon zitezkeenik. «Dagoena da», pentsatu nuen eta lanean hasi nintzen. Bolivian egiten nituen ohiko gauzak ziren: umeen zaintza, garbiketa... Etxeko lanak, azken finean.

Zer baldintzatan hasi zinen lanean? Gure arazoa da, atzerritarrak garenez, gutxienez hiru urte eman behar ditugula leku zehatz batean erroldatuta, gure egoera arautu ahal izateko. Denbora hori igaro arte, kontratu bat izateko edo Gizarte Segurantzza izena emateko aukerarik ez daukazu. Ez zara existitzen; «beltzean» zabilta lanean. Zeharo baldintzatuta zaude; lana eman dizuten horien menpe, agiriak egingo dizkizuten edo ez.

Horrek eskubideen urraketa eragiten du? Aurrera egiten saiatzen zaren arren, zure nagusiek oztopoak baino ez dizkizutela ipintzen nabaritzen duzu. Ordutegiei dagokienez, gehiegikeriak ematen dira; diskriminazioa, klasismoa eta arrazakeria ere eguneroko ogia dira.

Noizbait paperakaz xantai, mehatxatu edo eraso egin zituzten? Zorionez, ez nuen horrelako egoerarik bizi izan; ez da ohikoa. Hala ere, denbora luzeagoz eduki ninduten kontratua egin eta Gizarte Segurantzza izena emateko. Are gehiago, dagoeneko erregularizazio-prozesua abian zegoenean, nik neuk ordaindu behar izan nituen izapideak, nire soldatagaz, etxeko nagusiaren izenean. Gutxienez sei hilabetez kotizatzen egon behar zara, zure egoera erregularizatzeko.

Ordutik aurrera eduki zenituen lanetako baldintzak hobek izan ziren? Ez. Ikerketarako eta parte-hartzea sustatzeko talde batean ari naiz, eta etxeko langileez egindako azterketan frogatu dugu gaur egun gauza bera gertatzen dela: dagoeneko erretiratuta dagoen hemen jaiotako etxeko langile baten ahotik entzun behar izan ditut esklabotza-egoerak, abusuak eta indarkeria ematen direla etxeen barruan.

Horrek denak harritu egiten zaitu? Inondik inora ez. Hamabi urte daramatzat Euskal Herrira eta, denbora horretan, etxeko langileen egoera ez da aldatu. Honek guztiak sumindu egiten nau.

GETXO | Gizarte Zerbitzuetako langileak

Hutsik dauden postuak betetzen ez direla salatu dute beharginek

Getxoko Udalak aitortu du zailtasunak daukela gizarte-langileak ordezkatzeko eta azaldu du egoera hori konpontzeko lanean dabilela. Gaur egun, 14 langileetatik bi bajan daude, eta ez dago horien ordezkorik.

IKER RINCON MORENO ▶

Getxoko Gizarte Zerbitzuetako lanpostuak betetzeko arazoak daudela salatu dute zerbitzu horretako beharginek. Horren denaren erantzule Getxoko Udala dela azpimarratu dute, «hainbat arrazoiengatik betetzen ez diren lanpostuak ez dituelako ordezkatzeko». Azaldu dutenaren arabera, une honetan hamalau beharginek lan egiten dute Gizarte Zerbitzuetan, baina baja medikuan dauden langile biren postuak bete barik daude, urtarrilaren 24tik eta otsailaren 8tik, hurrenez hurren. Hala ere, egoera hori berria ez dela deitoratu dute, 2004an, 2007an, 2010ean eta 2017an mota horretako arazoak ere egon zirelakoan: «Baja medikuengatik, eszedentziengatik edo bestelako arazoengatik, lanpostuak langile barik gelditzen dira, batzuetan hainbat hilabetez». Horren aurrean, Getxoko Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) onartu du batzuetan gizarte-langileak arin ordezkatzeko zailtasunak daukateela eta Udala «aspaldi» dabilela lanean egoera hori konpondu ahal izateko. Arazoa, askotan, gizarte-langile libreak aurkitzeko zailtasunagatik sortu dela azpimarratu dute udal-arduradunek. Udal-gobernuak ziurtatu du gizarte-langileak ordezkatzeko konpromisoa daukela eta horrela izan dela azken urteotan. «Gizarte Zerbitzuekin kontu bereziarekin jokutzen da, eta egin den edozein eskaerari beti erantzun arina ematen saiatu da, baja, eszedentzia edo oporrak egiteko pertsona berbera izateko eskaera bezala», euren esanetan.

Getxoko Udalak ez du Gizarte Langileen kategoriako lan-poltsa propiorik. Izan ere, 2010eko Enplegu Publikoaren Eskaintzan ez zen osatu, karrerako funtzionario gisa plaza atera zutenez aparte, ez zuelako beste inork ariketa gainditu. Beste deialdi publikoetatik izandako lan-poltsak agortuta daudela azaldu dute udal-arduradunek. Argitu dutenaren arabera, Getxoko Udalak beste leku batzuetako poltsetara jo du (Bilboko, Barakaldo-



Gizarte Zerbitzuetako langileek salatu dute arazoa ez dela berria. HODEI TORRES

Getxoko Udalak ez du Gizarte Langileen kategoriako lan-poltsa propiorik, eta beste leku batzuetako poltsetara jo behar izan du.

ko, Portugaleteko, Santurtziko eta Basauriko udalekoetara), baita Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetara eta Eusko Jaurlaritzaren IVAPera ere. Azken horrek martxoaren 6an 40 pertsonako zerrenda eman zion Getxoko Udalari; hala ere, azken asteotan horiei denei deitu arren, horietako inork ez du eskaintza onartu, Udalak azaldu duenez. «Hurrengo urratsa izango da IVAPi zerrenda zabaltzeko eskatzea eta Lanbidera ere jotzea, pertsona-zerrenda bat bidal dezaten».

Gizarte Zerbitzuetako langileek deitoratu dutenez, euren lanpostuak bete ezean zerbitzuan kalte larriak gerta litezke, berbarako erreferentziatzeko profesionaltasuna galtzea, herri-tarrei arreta ezin ematea, eskakizunei ez erantzutea eta premia-egoerei atentziorik ezin ematea. «Horrek denak herri-tarrei eragiten die zuzenean, ezinezkoa dugulako euren beharrezkoen garaiz eta modu onean erantzutea. Modu berean, langileok gainkarga pairatzen dugu, eta horrek atentzioaren kalitatean du eragina ere», azaldu dute langileek prentsa-ohar baten bidez. ◀

Ezagutu gaitzazu!!!

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Auzoa auz. 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

BORJA ARBAIZA | Luthier birziklatzailea

«Gauzak nire kabuz egitea gustatzen zait»



Sortu dituen gitarretako bat zuzeneko kontzertuetan erabiltzen du Arbaizak. HO DEI TORRES

Berangoko Stay and Job egoitzan dauka bizilekua eta tailerra Borja Arbaiza getxoztarrak. Erabili ezin diren materialakaz musika-tresnak egiten ditu; skate-aulakaz egindako gitarra elektrikoak dira ikusgarrienak.

IKER RINCON MORENO ▶

Skate-aulak erabilia gitarrak egiten ditu Borja Arbaiza gazte getxoztarrak. Berangoko Stay and Job egoitzan dauka tailerra, eta bertan erakutsi dizkigu orain dela urte bitik, proiektua abiarazi zuenetik, egindako lan denak. Gazteak azaldu duenez, Interneten ikusitako bideo batek piztu zion skate-aulak erabilia musika-instrumentu horiek egiteko grina. Gauzak bere kabuz egitea gustatzen zaion pertsona horietakoa da Arbaiza, eta ideia horri helduta, musikaren eta skatearen mundua elkartzea bururatu zitzaion: «Proiektua ikusi bezain laster horretaz maitemindu nintzen; erabilgarria ez den taula bat musika egiteko berreskuratu ahal izatea izugarria da!».

Idea horri helduta, gitarrei *Stratoskater* izena ipini die Arbaizak, Fender Stratocaster gitarra-marka ezaguna eta *skater* izenak nahastuz. Orain dela urte bi ekin zion bideari, eta ordutik gitarra bi egin ditu: «Lehenengo osatzeko urte eta erdi eman nuen, kontu handiz egin nuelako lan eta hasiera batean ez neukalako oso argi zeintzuk ziren eman

«Material ezberdinak erabilia, askotariko instrumentuak egiteko esperimentatzea gustatzen zait»

«Jendea harritu egiten da gitarra hauen soinuaren kalitatea entzutean»

beharreko pausoak». Bigarrena, aldiz, lau arrastitan egin ei zuen.

Jendeak pentsa dezake instrumentu horietatik ezinezkoa dela musika egitea, soinua ona izango ez delakoan; baina ez da hala. Arbaizak gitarra horietako bat erabiltzen du bere musika-taldeakaz zuzeneko emanaldi denean; «jendea harritu egiten da soinua entzutean». Gainera, gitarrok kontzertuetan erabiltzeko beste abantaila bat eskaintzen dutela azpimarratu du gazteak: «Oso arinak dira, eta bizkarrak eskertzen du hori».

Hasiera batean gitarrak saltzea aurreikusen zuen Arbaizak, baina zozkatzea dauka buruan orain. Soinu-teknikari lanetan dabil gaur egun, eta ez du uste denbora askorik eskaini ahal izango dion gitarrak sortzeari, baina bai apur batzuk egin eta zozkatzeari. «Nire lana ezagutarazteko publizitate moduan ikusten dut hau. Egindako lana erakusteko egiten dut, bitxia delako».

Gitarrak gainera, bestelako instrumentu batzuk ere egin ditu Arbaizak, berbarako perkusiorako hang drum bat. Horretarako, konpresio-bonbona bat erabili du. «Hasieran proba egiteko besterik ez nuen egin, baina oso ondo gelditu da». Horretan, zailena notak afinatzea dela aitortzen du, baina egun bitan dena fin-fin uztea lortu zuen. Horrez gainera, laster baxu eta kontrabaxu bana egitea aurreikusen du, longboard eta eski taula bana erabilia. «Gauzak ikusi eta musika-instrumentuak bisualizatzen ditut», dio. ◀



Ideien trafikoa

SANTIAGO SAINZ ROBLES
Ciudadanosen bozeramailea

Batasunaren indarra

Martxoaren 8a izan zen Emakume Langileen Nazioarteko Eguna, eta mundu osoan ikusi genuen emakumeen elkarretaratze ugari. Aurten gainera, Espainiako historiako lehenengo greba feminista izan dugu. Benetan egun historikoa eta jendetsua; CCOO eta UGTren arabera sei milioi pertsonak egin zuten lan-etena estatuan. Nazioarteko prentsak ere Espainiako lehenengo greba feministaren arrakastaz hitz egin zuten.

Dakigunez, martxoaren 8a emakumeen eskubideak aldarrikatzeko eguna da: gizonak dauzkaten eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituzte, eta hori guztiz legezkoa eta justua da, baina ez da beti horrela izan. Hori dela eta, Argien Garaian Olympe de Gougesen-ek Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena idatzi zuen Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenean emakumeak ez zirelako kontuan hartzen. Eta Gougesen-ek emakumeen eskubideez idatzi zuen, emakume guztiei zuzenduta.

Aurten, martxoaren 8rako, zenbait elkartetatik kapitalismoaren aurkako mezuak bidali dira. Baina emakumeen aldarrikapen legezko eta justuak nahastu behar al dira ideologia antikapitalistarekin? Nire ustez, ez; alde batetik, eskubideen aldarrikapenak daude; eta bestetik, aldarrikapen ekonomiko-produktiboak. Gizon eta emakume bakoitzak edukiko du errespetatu behar dugun ideologia ekonomiko propioa. Horregatik ez dut ulertzen zergatik ez den zentzu horretan mezu inklusiboago bat bilatu.

Joan den 8an Madrilan Cs alderdiko emakumeak iraindu zituzten, emakumeak beste emakumeen kontra manifestazio feminista baten kontestuan... Guk beti errespetatu dugu greba honen deialdia, baina behin eta berriro esan dugu antikapitalistak ez garela eta emakumeen eskubideak aldarrikatzeko mezu horiek bidaltzea ez dela egokia.



URIBE KOSTA | Gizarte Larrialdiko Diru-laguntzak (GLL)

Gizarte-laguntzen banaketaz adostasunik ez

Iaz Gizarte Larrialdiko Diru-laguntza jaso zuten 221 familietatik 102ri murriztu dizkietela salatu du EH Bilduk. Mankomunitateak dio denek jaso dutela laguntza, baina askok ezin izan dutela dena justifikatu.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ILUSTRAZIOA: ARTEFAKTO ▶

Gizarte Larrialdiko Diru-laguntzak zenbait gasturi aurre egiteko bideratuta daude, baina horiek denak justifikatu behar dira.

EH Bilduk salatu duenez, 102 hartzailei murriztu dizkiete 2017an Gizarte Larrialdiko Diru-laguntzak (GLL) Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten herrietan. Laguntza horiek zenbait gasturi aurre egiteko baliabide nahiko ez daukaten pertsonen zuzendutako ez aldizkako prestazioak dira: ohiko etxebizitzari edo ostatuari eusteko beharrezko gastuetarako (alokairua, hipoteka, mantentzea eta oinarrizko ekipamendua) edo lehen mailako beharrezkoak duten gastuetarako (jantzea, hezkuntza, formazioa, osasun arreta...). 2017an 221 familiak jaso zuten laguntza hori, aurreko urtean baino bost gutxiagok, eta koalizio abertzalearen arabera, horietatik denetatik 102k murrizketaren bat jaso zuten iaz.

Anabel Landa Uribe Kostako Mankomunitateko presidentea, bere aldetik, azpimarratu du laguntza eskatu zuten denek hartu dutela prestazio hori: «Aurreko urteko bera jaso dute, eta batzuek apur bat gehiago, gainera». Zehaztu duenez, laguntzotarako dirua Eusko Jaurlaritzak ipintzen du, eta 2016ra arte «beti» sobera geratu da dirua, jendearen beharrezkoak asetzeko nahikoa egon delako. Hala, 2017an subentziorako irizpideak zabaldu egin zituzten, diru dena gastatu ahal izateko. Ondorioz, eskaerak handitu egin ziren, eta ez zen horiei denei erantzuteko diru nahikorik egon, «baina familia bat ere ez da gelditu laguntza barik». Landak azaldu duenez, gainera, onuradun batzuek ezin izan dute jasotako subentzioa justifikatu, eta laguntzaren zenbateko bat bueltatu behar izan dute. Izan ere, subsidio horiek finalistak dira, hau da, eskatutako helbururako bakarrik erabil daitezke, eta gastatzen ez dena itzuli egin behar da. Laguntzak erregulatzeko dekretu bat ipini zuen iaz Eusko Jaurlaritzak; ondorioz, horiek justifikatzeko irizpi-

334.842 €

Eusko Jaurlaritzak diru kopuru hori eman zuen 2017an Gizarte Larrialdiko Diru-laguntzetarako Uribe Kostako Mankomunitatean.

221

2017an 221 familiak egin zuten GLLa jasotzeko eskaera, eta denek jaso zuten laguntza.

102

EH Bilduk deitoratu du 102 familiak murriztuta jaso dutela diru-laguntza. Mankomunitateak hori onartu du, eta Jaurlaritzak ipinitako baldintzen ondorioz dela azaldu du.

deak gogortu egin dira. Landak zehaztu duenez, etxebizitzaren mantenua ordaintzeko emandako 171 diru-laguntzetatik «60k ezin izan dute justifikatu jasotako dirua». Modu berean, jakinarazi du oraindino 22 familiak ez dutela laguntza justifikatu, eta ez dakite egin ahal izango duten. «Kasu horietan, hartzaileek jasotako diru-laguntzaren zati bat bueltatu behar dute, dena justifikatu behar dutelako GLLetan». Hala ere, iragarri du iaz dirua hartu ez zuten baina justifikatzeko gai diren familiek aurten hartu dezaketela dagokien laguntza.

UDALEK OSATZEA GURA DU EH BILDUK. EH Bilduren ustez, beharrezkoa da udal-aurrekontu gehigarrien bitartez diru-laguntza horiek osatzea, «Mankomunitateko udaletan dauden gizarte-bazterkeria kasuak eragotzi edo arintzeko». Adierazi dutenez, murrizketa jaso duten 102 eskariak osatzeko 63.417,18 euro falta izan ziren. «Hartzaileentzat murrizketa garrantzitsua da, udalerrientzat aldiz kopuru oso txikia. Kontuan hartu behar da ere Mankomunitateak erabakiko balu laguntzak osatzea, Eusko Jaurlaritzak emandakoaren parte bat ordainduko lukeela, esleitutakoaren %30 gainditzen ez duelako», azaldu dute koalizio abertzalekoek.

Eusko Jaurlaritzak diru-kopuru hauek ipini zituen Mankomunitateko udalen esku: Sopelan 114.451 euro, Gorliz 58.493, Urdulizen 33.502, Plentzian 45.093, Berangon 59.036, Lemoizen 11.047 eta Barrikan 13.220. Denera 334.842 euroko aurrekontua eduki du Mankomunitateak Gizarte Larrialdiko Diru-laguntzak kudeatzeko. «Argi dago aurrekontu hau ez dela nahikoa izan eta okerrena da Mankomunitatetik ez zela beste partida baten bitartez osatu», salatu du koalizio abertzaleak. ◀

LEMOIZ | Hiri antolamendua

Hiru gune handietan bakarrik aurreikusten da hazkundera

Daborduko ikusbide daukate Lemoizko herritarrek Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren Aurrerapena. Hiru alternatiba aurkezten ditu planak, baina erdibidekoaren alde eginez; 200 etxebizitza berri inguru eraikitzea ekarriko luke horrek. Iradokizunak egiteko epea ekainera arte zabalik dago.

UNAI BREA ▶

Udalak martxoaren hasieran onartutako HAPOaren Aurrerapenak datozen zazpi urteetan 215 etxebizitza berri egitea iradokitzen du, 2004ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoaren erdia gutxi gorabehera. Txostena herritarren eskura ipini dute daborduko, eta ekainaren 12ra arte egongo da ikusteko eta ekarpenak egiteko aukera. Horrez gainera, aurrerapenaren egileakaz banakako hitzorduak egin ahal izango dira, aldez aurretik Udalagaz adostuta.

Proposamenak hiru alternatiba jasotzen ditu. Hura idatzi duen enpresako kide batek HIRUKAri azaldu dionez, lehenengo Bizkaiko Foru Aldundiak azken boladan emandako irizpideetan oinarritzen da, eta ahalik eta gutxien eraikitzea dakar. Oraindik garatu ez den zoru urbanizagarriari sailkapen hori

215

etxebizitza berri egitea aurreikusten du HAPOaren Aurrerapenaren bigarren alternatibak; horixe da, hain zuzen, txostenaren egileek gomendatzen dutena. Armintzan eraikiko lirateke gehien: 81. Urizarren 70 eta Andrakan 55. Gaur egun 728 etxebizitza daude Lemoizen.

kenduko litzaioke bide horretatik joz gero. Beste muturrean, hirugarren alternatibak 2004an onartutako Arau Subsidiarioei eustea proposatzen du. Lemoizko auzo denetan hazkundera aurreikusten du horrek: 405 etxebizitza berri, gehienez ere.

HAPOaren Aurrerapenak (eta honenbestez, Udalak) bigarren alternatiba du egokitzen. Bestela esanda, erdibidea. 2006tik EAEn indarrean dagoen Lurzoruaren Legeak ez du baimenik ematen dentsitate baxuko auzuneak egiteko, baina Lemoizko hainbat auzo desitxuratuta geratuko lirateke dentsitate handiagoko urbanizazioak gehituz gero, txostenaren egileen esanetan. Horregatik egin dute erdibidearen alde.

AHALIK ETA ETXEBIZITZA-DENTSITATE BAXUENA. Proposatutako 215 etxebizitzetatik, 206 udaleko hiru gune biztanletsuetan altxatuko lirateke: Armintza, Urizar eta Andraka. Beste bederatzia, berriz, Gazituan. Legeak baimendutako dentsitate baxuetan eraikiko lirateke, plana onartuz gero. Lemoiz ez dago behartuta babes ofizialeko etxebizitza portzentajerik eskaintzera eraikuntza berrietan; HAPOaren Aurrerapenak ez du mota horretako bakarria ere jasotzen.

Behin iradokizunak jasota, Udalak HAPOaren zirriborro zehatza egin eta Osoko Bilkurak onartu beharko du, alegazio-fasea zabaldu baino lehen. ◀

ARTOLOZAGA ANAIAK Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Bidaia hasi baino lehen gomendio batzuk...


Bidaiatu baino lehen **komenigarria da tailerrera joatea, aurre-azterketa eta sistema guztien ordenagailu bidezko diagnostiko elektronikoa** egiteko.

- Ibilgailuaren likido-mailak konproba itzazu.
- Pneumatikoen marraskia eta errodaduraren banda behatu, zein puntutaraino higituta dauden jakiteko. Karga altuko kasuetan, presioa zaindu, ordezko gurpilean ere.
- Indargetzaileak eta argiak behatu.
- Haizetako-garbigailuek egoera ezin hobean egon behar dute.
- Matxura kasuan erabili beharko diren tresnak behatu. (triangelu-seinalea, txaleko islatzailea, katua, uhalak, erremintak, argiak eta fusibleak aldatzeko ordezkoak ...).




Izarrak

Zenbat punta dauka izar ugarietak? Ugarietak diren horiek elkarri lotu eta irudi polit bat aterako zaizu.




Segundotxo bat...

Sekuentzia bi hauen artean segundo bakar bat besterik ez da pasa, baina gauza piloa jazo da. Bila itzazu bi irudien artean dauden aldeak.



Sumendia

Ai ama! Sumendia lehertu da! Zein bideri jarraitzen dio labak, tximiniatik gora ateratzeko?



GORLIZ · PLENTZIA | 'Anton Garai kortsarioaren historia' herri-antzezlan

Aktoreak herritarrek izango dira

Urriaren 20an eta 27an, Anton Garai kortsarioaren historia herri-antzezlan taularatuko dute Plentzian eta Gorlizen. Parte hartu gura dutenek apirilaren 22ra arte daukate izena emateko aukera.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Herri-antzerkiaren bidean beste pausu bat ematera doaz Plentziako eta Gorlizko herritarrek. Iaz *Plasentzia 1577* obrak izandako arrakastaren ostean, udagoienera antzerki historikoaren arloan mamitutako fikziozko testu bat taularatzeko prest daude: urriaren 20an, Plentzian antzeztuko dute, eta astebete beranduago, urriaren 27an, Gorlizen. Jokin de Pedrok idatzi duen *Anton Garai kortsarioaren historia* antzezlanean, 1509an modu tragikoan hil zen gorliztarraren bizitza kontatzen da; izan ere, Plentziako itsas museoan zegoen eskuizkribu zaharra lehen aldiz transkribatu ahal izan dute osorik, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntzagaz. Ikerketa horrek Anton Garai gorliztarra 1509an urkaberan eroan zuen auzi osoa argitara ekarri du. Gainera, De Pedrok aurreratu duenez, diputazioaren subentzioari esker, liburu banatan argitaratuko dituzte *Plasentzia 1577* eta *Anton Garai kortsarioaren historia* herri-antzezlanak; «ia seguru 2018an», Gorlizen bizi den idazleak aipatu duenez.

Iaz ere urriaren aurkeztu zuten *Plasentzia 1577* obra. «Plentzia moduko herri batean plaza 600 ikusle bete-beterik ikustea neguan oso zaila da, ez bada ikaragarriko dirutza kobratzen duen artistaren bat ekarri duzula», De Pedrok adierazi duenez. Aurten, baten beharrez emanaldi bi eskainiko dituzte, *Anton Garai kortsarioaren historia* antzezlanagaz. Horren egileak azaldu digunez, Plentziako eta Gorlizko udalek diru-laguntza eman dute horretarako. «Herri biak elkartzeko ondo etorriko da», uste du testuaren sortzaileak.

HERRI-ANTZERKIAREN ONURAK. «Gainera, herri-antzerkiagaz aprobetxatzen dituzu herrian daukazun musikariak, aktoreak, eta abar», Getxo 3 institutuko irakasle izandakoak aipatu duenez. Aurten Lirain abesbatza gorliztarraren laguntza edukiko dute. Hala ere, oraingo honetan, aktoreek kantatu beharrez, gehienbat sarrerarako eta trantsizioetarako erabiliko dute musika, De Pedrok argitu duenez. «Izan ere, obra hau tragikoagoa da; denok dakigu zelan amaitzen den», azaldu du. Ikuskizunaren musika-arloari dagokionez, Iñaki Lagosen zu-



Herri-antzezlan berri honek XVI. mendeko itsaslapurren gorabeherak akordura ekartzen ditu. JEAN LEON GEROME FERRIS



«Antzerkia egitea ondo dago, baina Plentzian zein Gorlizen egiteak eta, gainera, euskaraz, bultzada ematen dio gure hizkuntzari»

JOKIN DE PEDRO
IDAZLEA

zendaritzapean egongo da. Bestalde, Alex Ygartua arduratuko da berriro ere zuzendaritza eszenikoaz. Komunikazioan eta sustapen-lanetan Jesus Romo ibiliko da, eta ekoizpena Kultura Elkarrekin Aurreraren (KEA) ardura izango da. Antzerkia egiteko eredu honeguz, herritarren artean sortutako sinergiegi garrantzia kendu barik, euskarari egiten zaion mesedea gorapatu du De Pedrok: «Antzerkia egitea ondo dago, baina Plentzia eta Gorliz bezalako herrietan euskaraz egiteak beste bultzada bat ematen dio gure hizkuntzari», nabarmendu du.

IZEN-EMATEA. Apirilaren 22ra arte daukate herri-antzezlan honetan parte-hartu gura dutenek izena emateko epea; obraren gaineko blog berezia sortu dute: antongarai.blogspot.com. De Pedrok adierazi duenez, «lana egon badago»: testua daukaten aktoreak, figuranteak, testurik gabekoak, musikariak, atrezzo-laguntzaileak... izan daitezke. ◀

OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

Taberna

Ostegun, bariku eta zapatuetan
20:00etatik-23:00ak arte
PIZZA GOXO-GOXOAK!
...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO

Urbe Kostako gazteria saltsan!!

Irlandatik etorritako euskalduna



GORLIZ | Bakarrizketa Bariku honetan, martxoaren 23an, saioa eskainiko du Barry Manley irlandar euskaldunak, Gorlizko udaletxean. Hitzordua 19:00etan ipini dute; sarrera doan. Ekitaldia Plentziako eta Gorlizko euskarazko agenda bateratuaren barruan antolatu dute. Manleyk urte asko daroatza Euskal Herrian: 22 urtegez etorri zen (1961ean jaio zen Irlandako Cork herrian) eta euskara ikasteko jakin-mina piztu zitzaion, munduko hizkuntza zailenatarikoa ei delako, eta hemengo. Ingeleseko irakaslea eta idazlea da; hizkuntza horretan egiten ditu bakarrizketak ere.

Antzerkia

Martxoak 23, barikua

Inundación

20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Histeria Kolektiboa taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 6 euro.

Martxoak 24, zapatua

Sherezade y las capas de la cebolla

20:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Vaivén Producciones taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 10 euro.

El navegante

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Arimaktore kultur elkarteagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Martxoak 25, domeka

Mendi tontorrean

18:00 | Antzokia | Berango
Txalo Produzioak taldeagaz. 5 urtetik gorako umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 4 euro.

Jon Braun

18:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Anita Maravillasegaz. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 5 euro.

Xokolat

18:00 / 19:30 | Kultur Leioa | Leioa
Teatro Paraiso taldeagaz. Antzezlan 2 eta 5 urte arteko neska-mutilentzat da. Euskaraz. Sarrera: 2,50-5 euro.

Berbaldiak

Martxoak 22, eguena

Pentsioen gainean

18:00 | Altzagako azoka zaharra | Erandio
EH Bilduk antolatuta. Madrilen senataria den Jon Iñarririk berba egingo du, Karlos Ruiz pentsionisten elkarteetako kideagaz batera. Sarrera, doan.

Xabier Olarragaz berbetan

19:30 | Algortako kultur etxea | Getxo
Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak antolatuta. *Estilo ariketak* liburuaz berba egingo du idazleak. Euskaraz. Sarrera, doan. Ekitaldia hasi aurretik, 19:00etan, lagun talde bat elkartuko da liburuaren gainean berba egiteko.

Martxoak 23, barikua

Innovaciones a partir del s. XIX

18:30 | Areetako musika-eskola | Getxo
Berbaldi musikatua. Jose Maria Bretos Linazagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

Dantza

Martxoak 23, barikua

Hand to hand eta Lauesku 22

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Alde batetik, Kataluniako Roser López Espinosa dantzari eta koreografoak sortutako *Hand to hand* pieza laburra izango da ikusbide. Bestalde, *Lauesku 22* lana aurkeztuko du 2013an sortutako Lasala dantza garaikideko euskal konpainiak. Sarrera: 6-12 euro.

Erakusketak

Martxoaren 23ra arte

Emakumeen begiradak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Martxoaren 8ko ekitaldien barruan. Sarrera, doan.

Martxoaren 24ra arte

Getxo y otras cosas

Algortako kultur etxea | Getxo
José Antonio Arberasen olio-margoak. Doan.

Marcas: cuerpos reales

Algortako kultur etxea | Getxo
Amaia Aparicioaren argazkiak. Sarrera, doan.

Martxoaren 25era arte

Navajo-divertido

Torreña Aretoa (Algorta) | Getxo
Matxalen Oñateren pinturak eta eskulturak. Doan.

Jaiak

Martxoak 24, zapatua

Berango Kantarik urtebete

13:00 | Udal-pilotalekua | Berango
Poteoa eta umeentzako (14:30) zein helduentzako (15:30) bazkariak egongo dira. Gainera, kalejira egingo du Taberna Ibiltariak, 19:30etik aurrera

Herritik urrun dauden lagunak gogoraraziko dituzte, aste-akabuan



PLENTZIA | Kandela Eguna

Martxoaren 24an eta 25ean, euskal preso eta iheslari politikoan aldeko festa egingo dute, Jai Alai pilotalekuan. Zapatuan hasiko dira ospakizunak, Aldats elektrotzarangaren kalejiragaz. Domekan, 11:00etatik aurrera, umeentzako puzgarriak egongo dira eta 12:30ean, herri kirolak. 14:30ean herri bazkaria egingo dute, indarrak berritzeko.

Zinegoak



Erandio

Martxoak 22, eguena
18:30 Film laburrak, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Sarrera, doan.

Leioa

Martxoak 22, eguena
20:00 *Hoy partido a las 3* film luzea, Kultur Leioan. Sarrera, doan.

Sopela

Martxoak 22, eguena
19:30 *The Migrant Mixtape, Tailor, Marguerite, Little Potato, Tarde para el recreo, Ornitorrinco* film laburrak, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan.

Musika

Martxoak 22, eguena

Pablo Rios (pop)

20:00 | Silver's Tavern (Algorta) | Getxo
Getxon Zuzenean kontzertu-zikloa. Sarrera, doan.

Martxoak 23, barikua

Plentzia Kantagune

19:30 | Kristo baseliza | Plentzia
Entsegua eta kalejira egingo dituzte.

Txangoak

Martxoak 25, domeka

Babio eta Burubio mendietara

10:00 | Armintzako autobus-geltokia | Lemoiz
Etzandarri taldeagaz. Izen-ematea: 688 602 121

Zinema

Martxoak 22, eguena

Ekozinemaldia 2018

18:30 | Laboragunea (Iturriondo, 10) | Leioa
Informazioa: ekozinemaldia.blogspot.com.es

JUAN MARI

Harategia | Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREITA
94 464 41 25

KULTUR ELKARTE & TXOKO EUSKALTZALEA

BAZKIDE IZAN GURA?

WWW.AZEBARRI.EUS / EUSKAL HERRIA 14, ALGORTA

IRANZU ARONDO • IÑIGO CASABELLA | Gaztedi sokatira-taldeko kirolari algortarrak

«Athletic legez hartu gaituzte»



Arondo eta Casabella, Xuzhou-n, lortutako emaitzak ospatzen. © IRANZU ARONDO

Algortako lau kirolarik urrezko, zilarrezko eta brontzeko dominaren bat jantzi zuten Munduko Goma Gaineko Sokatira Txapelketan, Txinako Xuzhou herrian. Euretako bik azaldu dute egindako balentria hori: Iranzu Arondo Olague ile-apaintzaileak eta Iñigo Casabella Alonso udaltzainak.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Joan den martxoaren 8an, greba feministaren arrakastaz gainera, kirol-kontuak ere ospatu ziren Uribe Kostan. Egun hartan, Munduko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako 540 kiloko klubena proba irabazi zuten Gaztediko emakumeek, Txinan. Laukizko taldean parte hartu zuten Itziar Ansoleaga eta Iranzu Arondo algortarrek. Hurrengo egunean, tiralari euskaldunek podium osoa hartu zuten, eta Ansoleagak eta Arondok errepikatu zuten goiko mailan. Nerea Egurrola falta izan zen, getxoztarra lesionatuta baitago. Gizonezkoetan, Aner de la Cruzek lau metal batu zituen: hiru zilarrezkoak, 560 kilotan Gaztedigaz eta euskal selekzioagaz, eta 23 urtez azpikoan, selekzioagaz; eta brontze bat: Berriozarregaz, gazte-mailan. Azkenik, Iñigo Casabellak brontzea lortu zuen 600 kilotan, selekzioagaz, modalitate mistoan.

Pozik zaudete Txinan lortutako emaitzakaz? IRANZU ARONDO: Bai, urrezko bi ekarri ditugu klubena arteko txapelketatik, ondo ibili gara. Nazioen arteko lehiaren talde modura ez genuen parte hartu, ez ginelako ondo ibili hemen, Euskadiko txapelketan. Pena hori geratu zaigu. Nazioen arteko lehiaren *Basque Country* ordezkatu zuen Badaiotzek eta eurakaz Gaztediko hiru tiralari jardun zuten; horiek brontzea ekarri dute. Nik aurtan ez dut nazio artean tiratzeko aukerarik. IÑIGO CASABELLA: Oso pozik gaude. Izatez, gu, Gaztedi taldea, lurreko sokatira-taldea gara. Orain dela urte bi hasi ginen mutilak

goma gaineko txapelketa antolatzen eta horretan parte hartzen. Hala, lortutako emaitzak itzelak izan dira.

Zenbateko lana egin duzue dominak lortzeko? I.A.: Handia. Honetaz aparte badugu geure lana; nik ile-apaindegi bat daukat, Sopelan. Ordu asko egon behar dut zutunik. Gainera, nire kabuz korrika egitera irten behar dut. Eta entrenamenduak egiten ditugu Laukizen, astean lau egun, ordu bi. Lan egin ondoren, korrika egitera, eta Laukizera entrenatzera. Urte asko dira horrela. Nire 25. txapelketa izan da. 1991n hasi nintzen botatzen. 1993an lortu genituen urreak Laukizkoek, baita Gasteizen egin zen munduko txapelketan ere; baina ordutik aurrera, joan den martxoaren 8ra arte ez zen etorri taldera urrezko gehiagorik. Hala, aurtan bi ateratzea oso garrantzitsua izan da. Nik daborduko zazpi urrezko domina jantzi ditut, hamaika zilar ere baditut, eta hamazortzi brontze, denak nazioarteko txapelketetan eta beti Gaztedigaz. Piloa eman digu Gaztedik. I.C.: Bai, eguneroko lana izan da; janariaz aparte, entrenamenduak eta korrika egitea, pisua jaisteko. Guk astero bost egunetan egiten ditugu entrenamenduak.

Zelan bizi izan duzue buelta Txinatik Euskal Herrira? I.C.: Txarto ohituta gaude, horrelako agurrak izaten aireportura heltzean: dantzariakaz, trikitiagaz... Harrera kristorena izaten da, festa balitz legez. Berezia izaten da. I.A.: Guretzat buelta izan da garrantzitsua. Aireportuko pista heldu pilotuak esan zigun denok adi egoteko; suhiltzaileek Athletici legez egin ziguten, eta ur-zurrusta bigaz egindako ur-arkuaren behetik pasa zen hegazkina. Ondoren, aureskua terminalean... Oso polita izan da dena. Gainera, aurtan, lehenengo urrezko domina emakumeen egunean lortu genuen. Telebistek garrantzi handia eman zioten eta jende gehiagorengana heldu da.

Algortarrak izanda zelan hasi zineten Gaztedin, Laukizen?

I.C.: Sokatiran Getxo taldeagaz hasi nintzen. Baina 2015ean Getxo ahul geratu zen, eta ez zen taldea ateratzekoa munduko eta Europako txapelketara joateko. Ni postu berezi batean nabil, atzelaria naiz; Gaztedik atzelari bat behar zuen B taldea aurkeztu ahal izateko Belfasten, Europako txapelketan. Deitu egin zidaten eta eurakaz joan nintzen. 2016an Getxon ez zen talderik atera, eta Gaztedin geratu nintzen; A taldean lehiatu nintzen eta munduko txapelketa irabazi genuen euskal selekzioagaz. I.A.: Ni hasi nintzenean ez zegoen talderik Getxon. Lehenengo aldian, zazpi urtez egon nintzen Gaztedigaz, eta ez zegoen Getxoko neskarik. Geroago sortu zen Getxoko emakumeen taldea, baina ez zegoen osorik eta ez genuen eduki herrian tiratzeko aukerarik. Laukizen, oster, beti hartu gaituzte oso ondo: Berangoko lehengusinagaz eta ahizpagaz jardun dut. Orain Getxoko jende gehiago gabilta Laukizen sokatira egiten, Algortan ez dagoelako sokatira-talderik neskontzat. Pena da, Faduran izango delako munduko txapelketa 2020an, eta ez delako egongo denborarik dominaren bat atera ahal izango duen Getxoko talderik eratzeko. Triste da Getxon sokatira talde bat ez egotea, emakume askok egiten dutenean korrika, arrauna edo errugbia. Bestalde, gaur egun ez luke logikarik edukiko daborduko eginda dagoen Gaztediko taldea apurtzea, beste talde bat martxan ipintzeko.

Zelan ikusten dituzue eskualdeko sokatira-taldeak? I.C.: Lur gainean beti dago Goiherri eta Gaztediren arteko lehia. Baditugu ere Getxo eta Mutriku, baina Goiherri eta Gaztedi beti gabilta goiko postuetan. Normala da: Getxoko taldeak baditu 8-10 kide, eta Gaztedik 30 baino gehiago. Tiratzaileak leku bat baino gehiagotan kokatzea errazagoa da Laukizen. ◀



Algortan, lur gaineko munduko lehia

Casabellaren ustean, tiralari gehienek helburua munduko txapela irabaztea da, «baina penaz esango nuke Getxoko askoren erretiraldia izango dela. Tiralari asko uzteko gogoakaz dabilta, eta ahalegina egingo dute 2020ra heltzeko».

FUTBOLA | Thinking Football zinema-festibala

Emakumezko arbitroen aldarria

Joan den martitzenean estreinatu zen *Iragartze* film laburra. Bertan ikus daiteke Iragartze Fernández Esesumaga algortarraren ohiko aste bat. Hirugarren Mailako arbitro-laguntzaile eta erizaina da Fernández.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Irene Herrero del Valle idatzitako eta zuzendutako dokumentalean ikusbide dago Fernándezek (Getxo, 1993) zenbaterainoko ahalegina egiten duen egunero, arbitrajeak bere bizitzan leku garrantzitsua eduki dezan. Izan ere, *Iragartze* ez da futbolaren gaineko dokumental arrunta. Fernándezen arabera, «erakutsi gura izan dena epailetzaren ezkutuko aldea da eta, batez ere, emakumezko epaileena. Azaldu dugu heldu garen lekuraino heltzeak zenbat kostatzen duen eta zelan bateratzen dugun gure beharra izateagaz, lagunakaz, sendiagaz...». Bere ustean, «futbol-zelai batean kritikatzeko gaituztenetako askok ez dakite edo ez dira konturatzen entrenamendu-ordu pilo egin dugula, azterketa teorikoak eta proba fisikoak gainditu behar izan ditugula, bideoak ikusten orduak eta orduak ematen ditugula arbitratuko ditugun talde eta jokalaria zelan moldatuko diren ezagutzeko edo gure hutssegiteak zuzentzeko... Partidaren aurrekoa eta ondorengoa 90 minutuak bezain garrantzitsuak edo gehiago dira».

Erizain eta epailearen astebeteko bizimodua erakusten du film laburrak: beharrea, Basurtuko ospitalean; arbitroen batzordeak antolatutako formakuntza-saioteran; Faduran eta Basaurin, trebakuntza fisikoa egiten; Gorabiden, boluntario; eta zenbait futbol-zelaitan arbitratzen, tartean euskal selekzioaren eta Txekiaren arteko nazioarteko partidua.

Irene Herrero dokumentalaren egileak modu honetan laburbildu du zortzi minutuko film laburraren testuingurua: «Ikusi besterik ez daukazu zer agertzen den YouTubeen "*mujer árbitro*"



Eszena batzuk hamar bider errepikatu behar izan ditu *Iragartze* Fernándezek. © MEDIA ATTACK

Arbitroa baino lehen, Bizkerreko aurrelaria

Dokumentalean, Fernándezek erakutsi du jokalarien tranpak antzemateko daukan eskarmentua, faltak egiten eta epaileei protestatzen bai baitzekien *Ira Bizkerreko aurrelaria*. 21 urte zeuzkala lesio bat eduki zuen. «Epailetzan ikusi nuen futbolagaz lotura mantentzeko aukera».

idazten baduzu». Bera ere epaile ibili zen, 16 urte zeuzkanetik 19 bete arte. Gerora alde batera utzi zuen, baina ez du galdu horren grina. Ikus-entzunezko ikasketak amaitu zituenean, arbitrajea aukeratu zuen gradu-amaierako lana egiteko gai modura. Emaiza iaz aurkeztu zuen Thinking Football film-jaialdiaren euskarazko bideo-sorkuntzaren lehiaketara. Irabazi egin zuen, eta horri esker *Iragartze* film laburra gauzatzeko aukera eduki du. Athletic fundazioak antolatzen du Thinking Football jaialdia, Loraldia festibalaren laguntzagaz. ◀

ander deuna
i k a s t o l a

Haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA
946 760 266 · 689 01 04 28

info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

LEIOA | Artatzagana eta San Bartolome auzoak, lotuta

Larrakoetxeko zubia ireki berri du Leioako Udalak

Artatzagana eta San Bartolome auzoak lotzen dituen 500 metroko Larrakoetxeko zubia estreinatu zuen hilaren 15ean Leioako Udalak, Landabarri errekaaren gainekoa. Hala, orain Bordeoena parkearen ondoko biribilgunetik, San Bartolomeko ikastetxearen atzealderaino joan daiteke zuzenean. Kale berri horrek errei bana dauka noranzko bakoitzean, baita 77 aparkaleku, espaloi bi eta bidegorri bat ere.



ERANDIO | Tartanga Berdea

Altzagan eraiki gura dituzten 400 etxebizitzaren kontrako ekitaldia egingo dute domekan Erandioko udaletxe plazan, hilaren 25ean.

GETXO | Espaloia zaharberritu

Areetako Joaquin Arellano kaleko zati bat egokitzeko lanak abiarazi dituzte. Horiek amaitzeko epea hiru astekoa izango da.

GETXO | Erretzeari uzteko tailerra

Hilaren 26an erretzeari uzteko tailerra abiaraziko dute. Ikastaroa Algortako Gizarte Zerbitzuen egoitzan izango da, 18:00etatik aurrera.

GETXO | Romo Kultur Etxea

Apirilaren 9an martxan ipiniko dituzte Romo Kultur Etxeko lehenengo zerbitzuak. Gainerakoak apurka-apurka zabalduko dira.

GETXO | Apirilaren 15era arte

Udan ume sahararrak hartzeko izen-ematea zabaldu dute Getxon

Uztailean eta abuztuan etxean saharar umeak hartzeko izena eman daiteke apirilaren 15era arte. Programak eskaintzen die 10 eta 12 urte bitarteko haurrei udan Aljeriako errefuxiatuen kanpamentuetako errealitate gordina ahaztea.



URIBE KOSTA | Hirigintza

Kukularrako lotunea egokitzeko proiektua esleitu du Aldundiak

Construcciones y Promociones Balzola enpresari esleitu dizkiote Kukularrako lotunea eraberritzeko proiektuaren lehenengo faseko obrak. Lanon helburua da Arrontegi eta Txorierriko korridorearen arteko zirkulazio-pilaketak gutxitzea.



GETXOKO EH BILDU | Etxebizitza kolaboratiboak sustatu

«Egokiak dira kolektibo bat baino gehiagorentzat; guraso bakarrentzat zein nagusientzat, barbarako»



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN ALKARTEAK (EKA) | Eskubideak gogorarazi

«Besteak beste, eskaintzen diren produktu eta zerbitzuen informazio osoa eta egia jaso behar dugu»

3 domina

Raspas arraun-elkartea eta Getxo Arraun hiru dominagaz bueltatu dira Katalunian jokatuako Udaberriko Openetik: urrezko, zilarrezko eta brontzezko bana.



Algortako Portu Zaharra

«Inguruaren muga historikoak bilatzen ari gara, baita horren parte izandako lekuak ere»

«PAISAIA KULTURALA» TOPAKETA

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Kultur Leioaren ekimenez, Menditour Mendi film festibalaz gozatzeko lau bonu zozkatuko ditugu

Meditour Mendi film festibalera hurreratzeko bonua lortu gura baduzu, apirilaren 10a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Martxoko saria



Anima Te Getxo komertzioari esker, infusio bero-beroak hartzeko sorta

Komertzio horren ekimenez, sari hau zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali martxoaren 31 (zapatua) baino lehenago zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		2						5
	9						6	4
			3	9				
9			6	1				
						5	7	
7							3	6
1			5		8			
3					1	7	2	
				4				

3	5		4					2
		1				9		
	4					5		
				8				6
					2			8
6				1				3
2		4	8	9				
		8		7		6	2	
5	6	7						

Hitza emanda

Bertsoa

Zer ote da bertsoa?
Hori bai galdera!
Neurriz eta errimaz
osatzen da bera;
doinu bat, egokia,
behar da aukera
eta gero kantatu
denon bihotzera!

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

6	7	8	1	3	2	7	9	5
1	2	9	4	7	4	5	8	3
1	7	6	9	8	5	2	1	4
3	6	4	5	1	7	7	1	6
3	6	4	5	1	7	7	1	6
8	5	7	2	7	9	3	8	1
9	1	2	8	6	4	2	7	5
6	1	2	9	5	3	7	1	6
8	4	6	1	2	9	5	3	7
7	2	1	3	5	8	9	6	4
3	5	9	4	6	7	1	8	2

1	5	9	3	4	7	2	6	8
3	4	5	9	6	1	7	2	8
1	7	6	5	2	8	4	6	3
7	2	4	8	9	5	1	3	6
6	1	8	2	3	4	5	7	9
9	5	3	6	1	7	8	4	2
4	6	1	3	5	9	2	8	7
5	9	7	1	8	2	3	6	4
8	3	2	4	7	6	9	1	5



UNAI
ANGULO
ALDEKOA
Getxo

ALBE
Algotako
Bertsolari
Eskola

Flashback **Sopelako eskola** 1961-62 ikasturtea

UNAI BREA ▶

Gaur egun pertsona nagusien egoitza dagoen eraikinean (Larrabasterran) egon zen Sopelako eskola XX. mendeko zati handi batean. 1935eko dokumentu batek argitzen duenez, estatuak eman zuen diru-laguntza eskola «nazional» bi egiteko, bata neskentzat eta bestea mutilentzat, irakasleentzako etxebizitza eta guzti. Argazkian, 1961-62 ikasturtean eskolan zebiltzan neskak. ◀

ARGAZKIAN:

Behoko lerroan, ezkerretik eskumara: 1 Pili Garai,

2 Maria Antonia Perello, 3 Itziar Aio, 4 [?], 5 [?], 6 [?].

Bigarren lerroan: 7 [?], 8 Esther Uriarte, 9 [?], 10 Begoña Iturregi,

11 [?], 12 Bego Curpion, 13 Amaia Unibaso, 14 Maria Jose Goikoetxea.

Hirugarren lerroan: 15 Pili Galan, 16 [?], 17 Maria Encina Garai,

18 [Mertxe Gana ?], 19 [?], 20 Nerea Onaindia.

Laugarren lerroan: 21 [?], 22 Ane Unibaso, 23 Mertxe Areitio,

24 Tere del Hoyo, 25 [?], 26 [Paquita ?], 27 Begoña Hortelano.

Goiko lerroan: 28 Maria Luisa Areitio, 29 Bego Garai, 30 Manuela Ayo

(irakaslea), 31 [?], 32 Lourdes Rodriguez, 33 Pili Ansoleaga.



LOURDES RODRIGUEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

Urubitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA
Iñigo Kortazar Elias

DOINUA
*Urrezko isuri eder
gozoa*

ARGAZKIA
Hodei Torres

**Urubitakoran parte
hartu gura duzu?**

Bidal egiguzu atal honetan
agertzea gura zenukeen argazkia
eta bertan ikusiko duzu. ALBEko
kideek ipinitako bertso eta
guzti: hiruka@hiruka.eus

Bertso berriak artzain-txakurrari jarriak

*Artzain-txakurra ederra dugu
ezin utzi bazterrera.*

*Noizbait mundura ekarri zuten
Pirinioen larrera.*

*Geroztik han da mendi-maldetan
gora ez bada, behera.*

*Zenbat biderrez joana zaigu
ardiak gobernatzera.*

*Behingoz etxera sartu nahi izan
du atsedena hartzera,*

*baina atean lotu egin da
ez atzera, ez aurrera.*

*Ateko zulo erdi-erditik
pasatzeko dago lodi,
baina buruan izango ditu
txakurrak hainbat istori.*

*Bere bizitzan izango zuen
zorigaitz adina lori.*

*Argazkilari baten tranpan ei
zaigu laguna erori.*

*Horri eskerrak aukera eder
baten jabe zara, tori!*

*Zelan ahaztu txakurrak duen
begirada sarkor hori?*

*Ikusten denez, txakurra dago
zulo horretan gustura.*

*Letagin zorrotz erronkariak
begira daude zerura*

*eta ileek jasaten dute
kaosaren diktadura.*

*Aprobetxatu beharko dugu
momentuaren mentura,*

*berez baitakar saihestezina
egiten zaigun onura,*

*gure gogoan artzain-txakurra
disekatuta lotu da.*